


«Gomendagarria da pisua ahalik eta era osasuntsuenean berreskuratzea. Gero bakarka zein taldeko terapiak daude, zeinetan jateko ohiturak eta obsesio kontuak lantzen diren. Autoestima eta konfiantza lortzea da helburua».



irenstea kostatu egiten zaite.


Lagunekin ez omen du gaixotasunaz hitz egiten. «Ez da kate nola jokatu eta ni ere ez naiz gehiegi irekitzen». Eta igarotako momentu txarrenetan bere buruaz beste egitea ere pentsatu zuen. «Hemendik irten banaiz, nire sendiari esker izan da. Haiengatik egin dudala esan daiteke, nigatik izan balitz jai'nuen, guztiak berdin baitzidan». Guztiz sendatu ez bada ere, hizketan animoa sumatzen zaito. Ulergarria da, pasartakoa pasatu eta gero, oraindik eszeptiko samar egotea, baina agertzen duen bidetik jarraituz gero, lortzeko bidean dagoela pentsarazten digu.

Erreportaje guztian anorexia eta bulimia emakumeen gaixotasunak izan dira. Ez da egia, baina gaixotasuna garatzen duten pertsonen %90/95 emakumezkoak dira. Angel Padriana medikuak esan digunez, azken lauzpabost ur-

teetan 400 kasu inguru tratatu dituzte, zeinetatik 12 izan diren gizonzkoak. «Gure iritziz, gizonzkoek emakumezkoek baino arazo gutxiagorekin gainditzen dute gaixotasuna. Horrek esplikazio garbia du: gizonzkoek gorputz meha izateko presioa askoz ere baxuagoa da».

Angelck dei egin nahi die gaixorik leudekeenei. «Gomendagarria da pisua ahalik eta era osasuntsuenean berreskuratzea. Gero bakarka zein taldeko terapiak daude, zeinetan jateko ohiturak eta obsesio kontuak lantzen diren. Autoestima eta konfiantza lortzea da helburua».

Nagoreren historia gaixotasunaren historia da. Kontatu digunaren irudi mentala berak duen itsurarekin alderatzen badugu, emaitza guztiz desberdina da. Arazoa, ordea, horretan datza, gaixo haren insea eta errealtatea guztiz desberdinak izaten direla. Ez ote gara guztiok errudun? ■



## ACABE: ANOREXIA ETA BULIMIAREN AURKAKO ELKARTEA

**A**CABE (Anorexia eta Bulimien Aurkako Euskadiko Elkarte) gaixoen eta hauen senideen bizi baldintzak hobetzeko sortu zen; egun EAEko hiru hiriburuetan ditu egoitzak. Elkarte gaixoei, senideei eta adituei osatzen dute, hots, psikologo eta dietistek. Asistentzia medikua eman eta prebentzio lanak egiten dituzte. Walter ACABEko kidea da. 1996ko ekainean, gaixoen sendieki bultzatuta Arabako egoitza ireki zenetik, buru-belarri ari da elkartearen helburua zabalzen. «Urte eta erdi honetan lan itzela egin dugu gaixoen eta kalteruon bizi baldintzak hobetzeko. Gaixok zein gaixotasuna gainditu dutenak astean birritan biltzen dira psikologo batekin. Duintasuna, autoestima eta bizitzaren zentzu berria bilatzen saiatzen dira. Ez dira tratamendu taldeak, laguntza taldeak baizik. Bilerak espezialistekin egiten dira: psikologoak, endokrinologia eta ka-

su batzuetan pediatria ere bai. Gaixoenzatz ez ezik senideentzako taldeak ere badira. Walterrek hauetan hartzen du parte. «Gaixok izaten dituen izazera aldatzeko gurasoek sufrizten ditugu. Oso agresibo bilakatzen dira eta egoera ezarmanezin bihur daiteke. Familia da, aldi berean, gaixotasuna gainditzen lagunduko duena eta funtzio hori ahalik eta ondoen betetzeko eskema asko aldatu behar dugu; sufrimenduen ondorioz sortu diren automatismo eta dinamika askotekin bukatu egin behar da». Taldeko terapiak gain, informazio kanpainak eta tailerrak egiten dituzte. Sendien Aterabiderako tailerretan, adibidez, bizitzaren berriraketa hitz egiten dugu, horretan adituak diren espezialistekin. Informaziorako berariaz jarritako zerbitzua ere badute. Horretarako ACABEren egoitzetara joatea aski da, edo bestela, ondoko telefonoetara dei zenezakete: Gipuzkoa: 943- 21 60 42. Bizkaia: 94- 463 87 92. Araba: 945- 24 25 78»

